

JENDE ASKOREN HOMOFOBIA MURRIZTU DUTE HOMOSEXUALEN ESKUBIDEEN LEGEZKO LORPENEK

Lur Mallea



Homosexualen eta hereto-sexualen arteko bereizketa legala amaitutzat eman da estatu espainiarrean. Hainbat lege aldatu eta onartu ostean, bikote homosexualak eskubide berdinak bereganatu dituzte zuzenbidearen aurrean. Urteetako borrokaren emaitza izan da. Baina asko dago egiteko oraindik. Diskriminazio sozialak bere horretan darrai eta transexualen kolektiboak, denetan baztertuenak, bere oinarriko eskubideen aldarrikapenei gogor eusten die.

1990eko hamarkadatik hona, lege kontuak izugarri aldatu dira sexu bereko bikoteentzat Espainian. Gasteizko udala izan zen izatezko bikoteak udal Erregistro Zibilean baimentzen lehena, 1994an. sexu berekoak izan zein ez izan. Urte berean, Europar Parlamentuak arrazoi ezberdinengatik burutzen ziren bereizketa legalak alboratzeko agindua eman zien estatu kideei. Ordutik, hamaika udal eta autonomia erkidegoetan onartua da izatezko bikoteen izen ematea. Horrela lortu dute milaka pertsonak bisita, herentzia, pentsio eta beste hainbat eskubide izatea. 2003an, Euskal Autonomia Erkidegoan izatezko bikoteak eta berauek umeak adoptatzeko duten eskubidea onartu zen. Nafarroa, Katalunia eta Aragoi izan dira beste horrenbeste

egin duten bakarrak. Prozesu guzti honi, orain urtebete justu jarri zitzaion ginda, estatu espainiarrean sexu bereko pertsonen arteko ezkontza eskubi-idea indarrean sartzean.

Diskriminazio soziala

Azkenik, gay eta lesbiana elkarteen aspaldiko eskakizun legalak errealitate bihurtu dira. Lorpenak lorpen, atsedunik ez hartzea erabaki dute eta dagoeneko ezarria dute hurrengo erronka: sexu orientazioagatik edo sexu identitateagatik egiten den gizarte mailako diskriminazioaren desagertzea. "Diskriminazioa hortxe dago gizartean oraindik ere. Denbora eta lana beharko da desagertu dadin" dio Txema Gonzalok, Hegoak elkar-tereko presidenteak. Baina gauzak pixka bat aldatu dira diskriminazio sozialaren baitan. Aurre-erapen batzuk eman direla azpimarratzen du Txemak: "Garrantzitsua izan da erakundeen lana, legeak onartzea, gehiengoaren babesa izatea... guzti horrek lagundu egin du jende askoren pentsaera homofobikoa aldatzen eta murrizten".

Hala ere, begirada iraingarri, burla, mesprezu eta baztertze ekintzek bere horretan darraite eguneroko bizitzan. Koadri- lan zokoratuak izaten dira gazte homosexual batzuk eta ikasturtea errepikatu behar izaten dute beste batzuk. Gazteenganako diskriminazio kasuak dira azken boladan Hegoak elkartean jasotakoak. Herri txikietan gertatzen dira hiri handietan baino dezente gehiago.

Dena den, homofobiaren adierazpenik okerrera, norberak bere burua ezkutatzea da. Ezkutatze behartua esaten zaio etxean, lagun artean edo lantokian naturaltasunez norbere homosexualitatearen berri ez emateari. Zergatik? Ulertua izan ez eta bazterketaren beldurragatik. Eguneroko harremanetan esamesa homofobikoak nagusi direlako eta horrelako baldintzetan zaila baita ausartzea. Ez pentsa, langa hau ere gaintzen ari gara astiro-astiro. Gero eta gehiago dira beren jarrera sexualak normaltasunez adierazten dituztenak eta baita normaltasunez onartzen dituztenak ere.

Transexualak, baztertuenak

Pertsona anormal gisa hartu izan dira historikoki transexu-alak. Kosta egin zaie beren existentzia onartua izatea eta legearen babesa lortzea. Neurri desberdinen artean, aipagarria da Munduko Osasun Erakundeak, transexualitatea osasun arazo bezala tratatzeko emaniko lege agindua. Duintasuna berreskuratzen ari diren une honetan, laster gozatu ahalko dute zenbait eskubideetak Espainian.

Bi urte darama Zapateroren gobernuak Genero Identitatearen lege-proiektua kongresura noiz eramango zain. Behingoa- gatik, ekainaren 30ean izango da. Bidean geratu dira transexual kolektiboaren aldarrikapenak, lege onarpenaren atzerapen luzea eta pazientzia agortzean hasi zuten gose greba. Beraz, hementik gutxira, Genero Identitea-

ren legea indarrean sartzean, transexualek beren dokumentu ofizialetan izena eta sexua aldatzeko aukera izango dute. Sentitu eta bizi duten identitatea hautatuko dute, kirurgia genitala egina izan zein ez izan. Dokumentu eta agiri ofizialetan egin ahalko dituzten aldaketekin, lan arloan jasaten dituzten arazo asko konponduko dira.

Transexualen bigarren eskaera nagusia sexu aldaketaren doakotasuna da. Bestela esanda, Gizarte Segurantzak bere gain hartu ditzala sexu aldaketaren gastuak. Lau autonomia erkidegok horixe egiten dute jada (Andaluziak, Extremadurak, Aragoik eta Asturiasek). Zapaterok autonomia erkidegoen esku utzi du erabakia, osasun eskumenak beraienak baitira.

Diskriminazioa nola murriztu?

Bost esparrutan banatu daiteke egitekoa. Bat: erakunde eta lege mailako lana LGTB kolektiboaren (lesbiana, gay, transexual eta bisexualen taldea) eskubideak bermatzeko. Bi: hezitzaileen zeregin garrantzitsua, ume eta gazteek dibertsitatearekiko errespetua barnera dezaten. Hiru: komunikabideek kolektibo hauekiko erakutsi duten ikusezintasuna alboratu eta sentikortasunez tratatzeari ekitea. Lau: LGTB elkartean parte hartzea bultzatzea, beren egitasmoekin normaltasunerako bideak gizartean zabaltzeko. Bost: norbere ahalegina, eguneroko zereginetan pentsaera eta jarra- ra homofoboak baztertzeko. **F**